

## HILARRI BAT MUTILOAN


LORENTXO UGARTE

Duela urte pare bat (88-III-6), eta gure ohizko asteburuetakoa irteera batetan, Segurako herrira iristean, eskubiko bidea hartuta, berrehun bat biztanle dituen goierriko herri txiki batetara heldu ginan. Mutiloa bere izena.

Herri honetatik Aztiri aldera zihoan galtzada ba-

ten berri jakin genuen. Galtzada hori ezagutu nahian abiatu ginan eta Izagirre- garakoa baserri ondotik pasa ondoren, URMAU izeneko bidegurutzean, ORMA BURU deitzen dioten lekuan, hilarrri batekin topo egin genuen.

Anka hausita zuen eta erorita zegoen.







Aurrekaldea



Atzekaldea

Mendizabal-azpikoa baserrira joan ginan ondoren, eta bertako etxeoandre Josefa Saralegirekin hizketan jardun ginan.

Hilarri horretaz galdetu genion eta esan zigun, nola baserriko aiton amonek kontatzen zuten, behin galtzadatik zihuan eskale bat hilik gertatu zela leku horretan, eta harri hura bere oroimenez jarria izan zela.

Berak ezagutu zuenean osorik omen zegoen, baino duela hamar bat urte eta pinudi bat botatzera-koan, mendiko tresna batengandik hausia gertatu zela. Berak betidanik oso maite izan duela hilarri hori, eta asko eskertu zigun beretaz agertu genuen arretagatik.

Gaur egun hilarria zutik jarria dago.

#### Datu batzuek

Itsas gaineko bere altuera: 350 m.  
 Harriaren mota: Hargorria.  
 Orientazioa: Egoaldera.  
 Luzera guztiaren loditasuna: 12,5 zm.  
 Puskatutako zatiaren luzera: 44 zm.  
 Landuaren sakontasuna:  
 Aurrekaldean: 1,5 zm.  
 Atzekaldean: 1,0 zm.



